

BBK SOINU BERRIAK IRUDIAK HARTU ETA ERABILTZEKO BAIMENA

Parte-hartzailearen izena:

Parte-hartzailearen NAN/Pasaporte:

BBK SOINU BERRIAK musika-talde eta artisten lehiaketan parte-hartzeak lehiaketan zehar parte-hartzailearen irudia/ahotsa hartzea ekarriko du berekin. Baimena emanaz gero, irudi/ahots horiek Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioaren edo BBK Fundazioaren (aurrerantzean, "BBK"; horien IFK-zka. G48412720 eta G48644371 da, hurrenez hurren, eta helbidea Kale Nagusia 19-21, 48001-Bilbo) titulartasuneko edozein komunikabidetan argitaratu ahal izango dira BBKren Gizarte Ekintzaren jarduerak sustatzeko helburuarekin, honako hauek barne, adierazpen gisa, eta ez mugatzaile gisa:

- BBKren web-orri ofizialak Espainiarako.
- BBKren orri ofizialak Interneteko sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram, etab.).
- BBKren orri ofizialak online bideo-plataformetan (Youtube, Vimeo, Twitch, etab.)
- Prentsa-oharrak, sustapen-iragarkiak eta mundu mailako komunikabideak edozein formatutan (telebista, irrati, prentsa, web-orri, sare sozial eta abarretan).

Sustapen-edukiak argitaratuko diren hedabide eta euskarriez arduratzen diren enprekin partekatuko ditu BBK-k edukiak. Enpresa horietako batzuk eta sare sozial eta online bideo-plataforma gehienak Estatu Batuetan edo Europar Batasunetik kanpoko beste herrialde batzuetan daude, eta horien legeriak ez du eskatzen Europakoaren pareko babes-mailarik datu pertsonalei dagokienez, eta hori badakite eta berariaz baimentzen dute behean sinatzen dutenek.

Behean sinatzen dutenek berariaz baimentzen diote BBKri irudiaren erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa egitea, BBKren gizarte-ekintza sustatzeko, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera. Eskubideen lagapen hori doan egiten da, mundu osorako, eta epe mugagaberako. Ondorioz, dokumentu honetan jasotako datu pertsonalen tratamendua ere epe mugagabea egingo da.

Bai

Ez

Uneoro ezeztatu ahal izango dira baimenak, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko edo transferitzeko eskubideak erabili ahal izango dira, eskubide horiek aplikagarriak direnean; horretarako, mezu elektronikoko bat bidali beharko da protecciondedatos@bbk.eus helbidera, NANaren edo agiri baliokidearen kopia bat aurkeztuta, eta eskabidea zehaztuta. Datu pertsonalak babesteko eskubidea urratu egin zaizula uste baduzu, erreklamazioa jarri ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (www.aepd.es) aurrean.

.....(e)n, 2019koaren(e)an

SINADURA: